



Erika LAGOMA POMBAR

IPARRA

Doinua: Gai honek badu mamia

1

Zer da makilaje hutsa
zer funtsezko mamia
oraindik presente dugu
azken epidemia
lur azalean dardara
eta hipertermia
bizitza itotzen duen
sasi ekonomia
nitasunaren garaian
auzoaren premia
gutxiago gelditzen da
esnatzeko momia.

2

Mugaz gaindiko joerak
uneko setioa
kokalekuen arteko
hitzen sugestioa
kolonizazioaren
glukosa, opioa
hausteko erabakia
da autogestioa
behar dira ausardia
eta digestioa
euskaldun izatearen
talaia propioa

3

Faszismoa lotsagabe
mintzo zaigu European
beldurrak mantentzen ditu
burmuin ahalak lotan
Greba feministak daude
Bilbon eta Bogotan
zaintza ezin dugu jarri
letra txikiz kolokan
politika sozialetan
ta ekonomikotan
behingoz islatu daitezen
larruazal orotan.

4

Perspektiba ezberdinak
nahi ditut marrazkian
sare zulo aniztunak
nire iragazkian
zerua ez dago berdin
denontzat arrastian
termitak eroso daude
zumitzezko saskian
gure bueltan asko dago
ta ez dago aski han
zapalduak ere badu
norbait bota azpian.

5

Manosferaren zornezko
haztegi birtualek
X-ren jerifalteen
TikTok-eko kontuek
nahi gaituzte mutu, geldi,
dekorazio, vedette
kuadrilateroa dira
sareak ta internet
hankak gihartsu ditugu
ta eskularruak prest
bidea jorratzen dute
hitza hartzen dutenek.

6

Emakumeen kontrako
terrorismo zekena
eraso bat, erantzun bat
salatzeko sistema
lotsa bandoz aldatu da
zartatu da ordena
zutik segitzen du baina
gaixo dago zezena
isiltasuna da gure
bizipenen gangrena
berau da ahanzturaren
lehenengo abizena





Itzea URKIZU ARSUAGA

Geltokiak eta lubakiak

Lauki-laukiak dira leihoak, bi. Kristalak eguraldiaren biografia bat dira, tanta eta haize ufada bakoitzak urtetan hemen utzi duen arrastotxo fosilizatuz idatzita. Bulegoetan jarri ohi zituzten estore bana dute, kuxkuxean aritzeko zirrikitudunak, nahiz eta orain ameskeria den zirrikitu horietatik txutxu-mutxuren bat zelatatzea. Leiho zikin horiek ere higaduraren eta utzikeriaren biktima baitira: kanpoko munduaren eta barrukoaren kronologia bitan banatzen duten artefaktu.

Hemen ginen duela zortzi urte ere; nola ahaztu pneumonia hura hamabost hilabete gure haurraren eztul itoan. Bederatzi urte ditu orain, eta elkarri begira gaude, egingo dioten ebakuntzatxo baten karietara. Ospitaleko gela hau geltokitxo bat da, antza, gure historia partikularrean.

Ohea handiagoa da orain, orduan sehaska zen. Nola mugitzen zen orduan, eta hesia eskalatzen saiatu, hodie eta kableei tiraz; aspertuta baina egonarriz dago orain, pixkana heldutzen ari den haur baten jarrreran. Orduko ile urrekara eta kizkurra ditu oraindik, baina, hilabetetan eskean jardun eta gero, ile-sorta bat berdez tindatu berri du, azazkal koloretsuekin harmonian.

Eskuetan du Durangoko 67. azokan erosi genion liburua: Yuri, Ahetze eta Garoaren arteko maitasun, ezin ulertu eta irrika istorio bat, ehun bat orrialdetan. Neronek ere irakurri behar dut amaitzen duenean, hala pentsatu dut. Euskal literaturak eleberri erromantikoei kanonean sartzeko baime-na eman zenez geroztik, irakurle militante, mega-koherente eta politizatuaren posiziotik lasaiago ateratzen da bat.

Egunkariari heldu diot nik, eguna medikuen bisita eta bisita arteko denbora-tartetan neurtzeari uzteko. Azaleko titular historikoa ez da gutxiagorako: “Askatu da korapiloa: ikastola eredia publikatuta, hezkuntza-sare bakarra denentzat”. Ezpainez irribarrea marraztu didate. Aldamenean, zutabe bakarrera, Amira Musalem Alberdi ikerlariari elkarrizketa: «Karga mentalaren politizazioak nabarmen aldatu du familiaren arketipoa azken hamarkadan».

Kax-kax jo du medikuak, eta erresistentzia-probaren emaitza ekarri digu: ebakuntza-ostean infekziorik sortuko balitzaio, semearen gorputzak onartuko luke antibiotikoa. Arnasa, sakon. Hemen egon ginen azken aldian, medikuak itota eta iritsi ezinda zebiltzan; paziente asko estres linguistikoak jota. Orain, berriz, ospitaleko hormetako afixek baliabide ekonomikoak galdegiten dituzte urgentziaz, superbakterien ikerkuntzarako.

“Batez beste 15 gradu egin ditu joan den abenduan”. Politikan, “Parlamentuan urte hasiera markatuko du Zaintza Sistema Publikoa sortzeko legearen eztabaidak”. Sansebastianak ere urrutien izan ziren: “Urrezko Danborra jasoko du Donostiako Oritz Ama Taldeak”. Mantxetaren gainean, kurtzibaz: “Azken urtebetean 3 milioi jazarpen-kasu hauteman dira, automatikoki, bat-bateko mezularitza app-etako testuetan; iaz baino %5,2 gutxiago”.

Mugikorrera jo dut duela zortzi urteko argazki baten bila, eta bihotza urtu zait hari begira:

– Ama, zer duzu? Erresistentziarena listo, ezta?

– Bai, bai, lasai. Sortuko dira lubaki berriak.



7

Gizonak ta jazarleak jarri ditugu deman nahiz ta denak hazi diren boteretsu sisteman. Ez diote nahi elkarri leziorikan eman. Pertsonak behar ditugu popa aldean, leman ta konponbidea izan behar dute probleman ezin da aldi berean arnastu eta edan

8

Idazteke daude hainbat berri ta lerroburu elkarrekin egin nahiak sare forma hartu du gorputz bakarra daukagu eta milaka buru lotu ditugu Lesaka, Durango ta Ziburu nor bere esparruetan lanean dihardugu eztabaidak eztabaida iparra argi dugu.